



OPILTXO JOSTALARIA

Gizon bat eta emakume bat etxe txiki batean bizi ziren, errepide baten ertzean. Haien etxetxoan gustura egoten ziren bakar-bakarrik, denbora pasan. Baina batzutan, Iraia eta Xabier haien aitona-amonaren etxera etortzen ziren arratsalde pasa, gurasoak lanean ari ziren bitartean.

Egun eder batean, Iraia eta Xabier aitona-amonaren etxean zeuden eta jolasean aspertu zirenean, aitonak esan zien:

–Opil bat egingo dugu askarirako!

–Hemen dago irina, gurina hozkailuan, arrautzak arasa gainean, azukrea armairuan... – Amonak gauza bakoitza esaten zuenarekin batera, aitona, Iraia eta Xabier ziztu batean mugitzen ziren haien bila, gauza guztiak mahai gainean utzi arte.

Ontzi sakon bat hartu eta gai bat bestearen ondoren bota eta nahastu zituzten bertan. Gurina eta azukrea lehendabizi, arrautzak haien ondoren eta azkenean irina. Eskuak ontzian sartu zituzten denek eta irabiatzen hasi ziren, masa eskuen artean irristatzen zelarik. Osagai guztiak ondo nahastu arte, hor aritu ziren masari eraginez, nahasketa guzti hura masa bat bihurtu arte. Labe beroan sartu zuten opila, zapal-zapala bezain borobila.

Eta hor egon zen opila denbora luzean, amonak labea ireki eta egina zegoela ikusi zuen arte. Orduan denak joan ziren opila ikustera; urre-gorrikoa zirudien, borobil-borobila; hortz artean karraskatzeko gogoia ematen zuen horietakoa. A, haren usaina goxo-goxoa zen, ezin hobea, etxe osoan barreiatzen zen, eta neska-mutila hantxe zeuden begira-begira noiz hoztuko zen zain, koska egin eta instant batean jateko.

Baina gure opiltxoa haien aurpegi gosetiak ikusita, zera pentsatu zuen:

–Ni banoa hemendik, inoren askaria bilakatu baino lehenago. –

Ez bat eta ez bi, salto handi bat eman eta ate-zuloko zirrikitutik irristatu zen errepidera. Aldapa behera abiatu zen jira eta bira, jira eta bira, abiada handian, nora ezean.

Etxeko guztiak hor abiatu ziren opiltxoa harrapatu nahian. Aitonak erratza hartu zuen esku artean, amonak burruntzalia, Iraiak zapi bat astintzen zuen airean, eta bitartean Xabier harrika hasi zitzaion opiltxoari haren ibilaldia gelditu nahian.

Bihurgune batera iritsi zen geroxeago, eta zubi bat ikusten zen errekatxo baten gainean. Opiltxoak abiada handiagoa hartu zuen zubi hartatik pasa zenean, baina aitona arnas- estu gelditu zen bide bazterrean, amonari burruntzaliak ihes egin zion eta errekatxoaren hondora erori zen, Xabier harririk gabe geratu zen eta Iraiaren zapia erabili behar izan zuten denen izerdiak eta malkoak xukatzeke; izan ere, berehala konturatu ziren opilik gabe eta askaririk gabe geratu zirela arratsalde hartan eta etxera bueltatu ziren haserre.

Opiltxoa ez zen atzera begira gelditu. Bidean aurrera egin zuen, aldapan behera, jira eta bira, joan eta joan. Poz-pozik irristatu zen zuhaitzen artean, barrez algaraka, halako batean, aldaparen bukaeran, etxetxo bat ikusi zuen arte. Etxe hura jatetxe famatu bat zen eta sukaldariak harriturik begiratu zieten opiltxo jostalari hari.



- Ai eta Oi!
- Zer opil ederra! Jateko gogoa egiten da hau ikustean.
- Esne-gain pixka batez igurtziko dugu!
- Ez, mermeladaz!

Opiltxoak sukaldarien hitzak entzun eta itzulipurdi batzuk airean eman ondoren, etxearen beste aldetik atera zen, lehen baino abiadura handiagoan. Sukaldari guztiak haren atzetik atera ziren, garrasika, opila harrapatu nahian. Baina berehala nekatu ziren korrika egiteaz, gainera estropezu egiten hasi ziren batzuk besteekin; izan ere, belaze berde-berde batean sartu ziren, aldapa handi baten erdian, eta ezin zuten hain korrika ibili, aldapan behera.

Opiltxoa jira eta bira heldu zion bideari, ibili eta ibili, joan eta joan, belaze aldapatsu hartatik behera. Behi bat ikusi zuen orduan, belarra jan eta jan; baina behiari ez zitzaion opiltxoa batere interesatzen, eta bere askaria jaten jarraitu zuen, lasai asko. Geroxeago artalde batekin gurutzatu zen, eta alde batera baztertu zen; beldurra ematen bai zion ardi batek, uste gabe, bera zapaldu eta kraskatzea.

Baina opiltxoa nekatuta zegoen eta mareatu xamarra, hainbeste buelta eman ondoren eta atsedena hartzeko asmoz, arnasa errekupe ratzen zuelarik, sartu zen bide bazterrean ikusi zuen zulo txiki batean. Geldi-geldi geratu zen han ilunpean, lasaitu nahian. Orduantxe sartu zen azeria bere zulora eta haren ondoren bigarrena. Lehenengoak jan zuen opilaren erdia, eta bigarrenak beste erdia.

Eta istorio hau bukatu zen azeri batek putz bat bota zuenean eta bigarren putza besteak.



Itziar Zubizarretak moldatua